



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2018-02-14

BILERA ZENBAKIA:46

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Itziar, Erkuden, Maider, Ruth, Jabi + guraso elkarteko ordezkari bat eta eskolako bi ordezkari.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. ESKOLAREKIN ETA GURASO ELKARTEAREKIN KOORDINAZIOA ETA BERDINTASUNAREN INGURUKO HAUSNARKETA.

2. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA

3. ETXEKO LANAK

4. MARTXOAK 8A.

1. ESKOLA ETA GURASO ELKARTEKO ORDEZKARIEKIN BERDINTASUNAREN INGURUKO HAUSNARKETA.

Ongizate lantaldearen urteko plangintza berdintasunaren gaian zentratuko da. Eskola eta guraso elkarteekin koordinazio bat egitea planteatu zen aurreko bileran, lan koordinatu bat aurrera eramateko, eta, elkarren artean elikatzeko. Bileran landutakoak:

A- Ongizate lantaldeak 2018rako duen planteamendua azaltzen zaie guraso elkarte eta eskolako ordezkari. (Aurreko aktan ikus daiteke Ongizate lantaldearen planteamendu 2018rako).

- Plangintzaren barruan honako ekintzetan egon daiteke eskola eta guraso elkarte lankidetzaren lanketa: Mural baten lanketa, jolas sexten lanketa, egutegiaren lanketan kolaborazioa, udako dokumentalaren aukeraketa eta difusioa, topagunean parte hartzea.
- Bestalde, tailerrak, ikastaroak, ikuskizunak edo sentsibilizazio lan bat eratu nahi bada, berdintasunerako bideratuta dagoen aurrekontua 1.500 eurokoa



da. Ikusten diren behar eta zerbitzuetara bideratu ahal izango direnak.

- Sexune zerbitzuaren nondik norakoak azaltzen dira, berdintasun lantzeko baliabide gisa erabil daitekeena. Eta dauden beharretara egokitzen den baloratzen da.

B- Eskola eta guraso elkarteko kideek entzundakoaren inguruko hausnarketa azaleratu, eta, berdintasunaren arloan egiten ari diren lana azaleratu eta behar komunen identifikazio bat egiten dute.

Guraso elkarte eta eskolako ordezkarien hausnarketa:

- Eskolan hezikidetza egunerokoan lantzen da, zeharka. Gia bezala ere lantzen da.
- Proiektuak lan egiten dute eskolan, momentuan lantzen dabilen proiektua futbol lehiaketa bat da. Bertan kooperazioa, integrazioa, rolen inguruko hausnarketa eta guztien parte hartzea lantzen da besteak beste.
- Hezikidetza tailerra eman zen iaz eskolan, eta, horrek laguntzen du, egunerokoan jorratzeko eta presente izateko.
- Sexualitatearen gaia oso gai interesgarria dela irizten dute. Guraso eskolan eta ikasleekin landu ahal izateko.
- Guraso elkartetik aurrera eramaten diren ekintzetan Sexunek eskeintzen dituen zerbitzuak eta antzekoak kontutan hartzea interesgarria litzake.

2. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA.

Ez da alkdaketarik izan.

3. ETXEKO LANAK.

3.1. Bertso saiorako gaiak pentsatu.

Gaien proposamen bat egin da, eta, taldekideak egoki ikusi dute. Proposatutako gaiak anitzak izan dira, esparru ezberdinak lantzen dituzte, eta, Itsasondokin lotura dute. Amatasuna, futbola, bular minbizia, baratza, hipoteka, indarkeria, belaunaldi ezberdinak, indarkeria, umorea, heriotza, maitasuna, bertaratutako pertsonekin elkarreragina (joko bat).

Gai jartzaile bat behar da.



3.2. Egutegirako argazkietan pentsatu.

Egutegirako argazkietarako honakoak proposatu dira:

- Kirola: Umeak kiroletan, futbol edo pala txapelketa, bestelako argazkia)
- Etxeko lanak: Umeak plantxan, sukaldean, etab. jolasten.
- Sukaldaritza: Arbelaitz, sukaldean.
- Lurdesenen erosketak egiten.
- Errueda aldatzen.
- Bonbila aldatzen.
- Mutilak porteatzen, karroakin./ 2017an guraso izan direnen argazki bat.
- Haur txokoa, liburutegia.
- Lantaldeak edo zinegotzi bilera.
- Guraso elkarteko bilera.
- Sexua.
- Batukada.
- Memoria tailerra, tipi tapa.
- Martxoak 8ko afaria.
- Festak: Plantxako eguna, etab.

Argazkilariekin konpartituko dira izandako ideiak, eta, argazkiak konkretatu. Datorren ongizate lantaldean argazkilariak etortzea proposatzen da. Gaiak eta argazkiak aukeratzeko.

Hurrengo bileran Herri Bizitzako lantaldean egutegiaren ideiaaren aurkezpena egitea planteatzen da.

3.3. Besteak:

Mintza lagun: Mintza lagun ekimenean egun ez dago planteatutako ekintza egin ahal izateko jende kopurua.

Sexune: Zerbitzu katalogoa aurkeztu da eta guraso elkarte eta eskolako ordezkariak azaldu zaie.

Jostailuen lanketa: Taldeko bi kide aduratuko dira, eskolak eta guraso elkarteak ere parte hartzeko prestatutasuna erakutsi dute.

4. MARTXOAK 8

Martxoak 8rako kontzentrazioa egitea pentsatzen da 18:00etan. Greba eguna izango da eta ziurrenik edo probintzia mailako deialdiak egingo dira, ez bikoiztea kontutan



hartuko da.

5. GOIEKI

Goiekik kontratatua zuen adin txikikoen babeserako zerbitzua bertan behera geratu da. Udalen aportazioarekin orain emakumeentzat langabezia programa bat jarriko da martxan. Formakuntza programa bat izango da, baina detaileak ez daude argi. Enteratzekotan geratu da lantaldeko kide bat.

6. BESTEAK.

Proposatutako lan plangintzarekin jarraituz honakoak erabaki dira. Martxoan, mintzalagunerako zegoen proposamenarekin zer egin daitekeen ikusi.

Topagunea aurrera eraman ote daitekeen begitratu eta proposamen bat egin.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Argakilariekin hitz egin	2018-03-14	RUTH - ERKUDEN
Goieki, Langabezi programa zer den begiratu	2018-02-14	ERKUDEN
Herri Bizitzan egutegiaren proiektua aurkeztu	2018-02-14	ERKUDEN
Topagunearen inguruko hausnarketa	2018-03-14	MAIDER - JABI
Aldizkatirako genero indarkeria landu	2018-03-14	GIZARTE LANGILEA

HURRENGO BILERA

2018ko martxoaren 14an egingo da 19:00etan Udaletxean:

Jorratuko diren gaiak:

1. Egutegirako argazkiak. (argazkilariekin bilera)
2. Etxeko lanak:
 - Topagunearen inguruko hausnarketa.
 - Mintzalagunarekin zer egin?
 - Goiekiko langabezi programa.
 - Aldizkarirako genero indarkeria.
 - Herri Bizitzan egutegia aurkeztu.
3. Martxoak 8ko balorazioa